

OÑATIKO UDALAREN ETA ALOÑA MENDI KIROL ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA

Bildurik

Alde Batetik, **IZARO ELORZA ARREGUI** andrea, NAN zenbakia 15396342-G, Oñatiko Foruen enparantza 1 zenbakian lan egiten duena, Alkate izanik Udal Korporazioaren izenean.

Bestetik, **ANTON INZA BIAIN** jauna, 72.566.923-Z zkidun E.N.A.z, Oñatiko San Lorentzo, 14-4. eskuman bizi dena, Aloña Mendi Kirol Elkartearen izenean.

-

-

Azaltzen dute

I.- Aloña Mendi Kirol Elkartea lan oparoa egiten ari dela Oñatin kirolaren alde azken hamarkadetan.

II.- Oñatiko Udalak eta Aloña Mendi Kirol Elkartek elkarriketak izan dituztela, euren arteko lankidetzara iraukorra ezartzeko eta bermatzeko helburuarekin.

III.-Ekainaren 11ko 14/1998 Euskal Herriko Kirol Legearen 2-1. artikuluan dio, kirolgintza pertsonen garapen integralari eta formazioari, eta norbanakoaren zein gizartearen ongizate eta bizi kalitatearen hobekuntzari laguntzen dion jardura soziala dela; 2-3. artikuluan dio gainera, herri aginteei eskubide horren gauzatzea bermatzeko dutela, kirol asoziazionismoa antolatuz eta sustatuz zein kirolgintzako antolamendu pribatuen egiturak aintzat hartuz eta babestuz, kirol arloan Administrazioen eta federazio edo/eta beste edozein kirol erakunderen arteko kolaborazioaz.

IV.- Aloña Mendi Kirol Elkartea 1.986 urteaz geroztik dagoela inskribatuta Euskal Herriko Kirol Erakundearen Erregistroan, eta dagokion herri onurako elkarte aldarrikapena duela.

Aloña Mendi kirol elkartek 14 sail eta 1.200 bazkide dituela 11.525 biztanledun herrian.

V.- Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 28. artikuluan, dirulaguntzak zuzenean emateko aukera aurreikusten du, haiek aurrekontuetan izenez jasota badaude eta kontzesioa arautuko duten hitzarmenen bidez egiten bada.

VI.- Indarrean dagoen toki legedian eta kirol legedian zein Dirulaguntza Legean,erakunde pribatuekin elkarlanerako hitzarmenen figura aurreikusten dela, giza intereseko jarduerak sustatzeko xedearekin.

VII.- Hori guztia kontuan izanda, eta alde bien onurarako izango denez, honako hitzarmen hau.

Hitzartzen dute

1.-Hitzarmenaren helburua

Hitzarmen honen helburua Oñatiko Udalaren eta Aloña Mendi Kirol Elkartearen arteko lankidetzaren eredu modu iraunkorrean ezartzea da, bai dirulaguntzei dagokienez eta bai bi aldeen arteko harremanei dagokienez, beti ere Oñatiko kirol jarduerak bultzatu eta bermatzeko xedearekin.

2.-Datuen babesa:

Aurreko atalen arabera Estatuko Administrazio Orokorreko Kontuhartzailetzari egin beharreko datu pertsonalen lagapena, dagokionaren baimenik gabe egingo da.

3.-Hitzarmenaren iraupena

Hitzarmen honen iraupena urte betekoa da, udal aurrekontuak ahalbideratzen duten heinean beste lau urtez luzatu daitekeena.

4.-Dirulaguntzak

Oñatiko Udalak urtero Aloña Mendi Kirol Elkarteari emango dizkion diru laguntzak honako banaketa hauen arabera emango dizkio

4.1. Ohiko jardunagatik dirulaguntza

Urteroko ohiko kirol jardunerako 71.945,60 euroko dirulaguntza luzatuko dio Oñatiko Udalak Aloña Mendi Kirol Elkarteari, beti ere ondoren azaltzen den gutxieneko sail, talde eta lizentzia kopurua mantentzen badu Aloña Mendi Kirol Elkartek.

Urteroko azaroak 1erako Aloña Mendi Kirol Elkartek Oñatiko Udalari ziurtatuko dio hurrengo urterako gutxiengo horiek beteko direla. Betetzen ez badira, hitzarmenaren jarraipenerako aurreikusita dagoen egituraren baitan adostuko da kopuru berri bat.

Ohiko kirol jarduneko atal honetan hauek dira sartzen ditugun kontzeptuak: federazio gastuak, epaileak, bidaiak, arropak, ekipamenduak, materiala, aseguruak eta abar.

Ohiko jardunagatik dirulaguntza, Udal kirol zerbitzuko 2023ko gastuen-aurrekontuetako 107004813410003 2023 (282) "Aloña-Mendi KE-ri diru-laguntza" partidatik ordainduko da.

4.2. Txapelketetan sortutako egoera bereziak

Ohiko kirol jardunean lortutako arrakasta baten eraginez, behar bereziren bat sortuko balitz hitzarmenaren jarraipenerako aurreikusitako egituraren baitan adostuko da behar jakin horri aurre egiteko dirulaguntza kopurua.

Txapelketetan sortutako egoera berezientzako dirulaguntza, Udalaren 2023ko gastuen-aurrekontuetatik ordainduko da.

4.3. Ezohiko kirol jardueretarako dirulaguntzak

Oñatiko Udalak 25.513,50 euro aurriztatu ditu Aloña Mendi Kirol Elkartek bere ohiko jardun eta txapelketatik at antolatzen dituen kirol jarduerak berezietarako.

Kopuru hau murriztu edo handitu egin daiteke, urtero antolatzen diren jarduera berezi horien arabera. Horregatik, aurrikuspen zehatza egiteko, urteroko azaroaren 1erako Aloña Mendi Kirol Elkartek aipatu jardueren zerrenda. Bestalde, jarduera horien memoria teknikoa 2024ko otsailak 15a baino lehen luzatuko dio elkartek Oñatiko Udalarari ahalik eta zehaztapen handienarekin, horien aurrekontuen likidazioaren aurreikuspena ere aurkeztu behar duelarik

Edozein modutan, dirulaguntza hauek banaka eta jarduera bakoitzaren azterketa eta likidazioaren arabera luzatuko dizkio Oñatiko Udalak Aloña Mendi Kirol Elkarteari.

Erreferentzia gisa, hitzarmen hau indarrean sartu aurretik kontzeptu honetan Oñatiko Udalak Aloña Mendi Kirol Elkarteari luzatutako dirulaguntzen zehaztapena erantsi da hitzarmen honetako I zenbakidun eranskinean.

Zerrenda honetatik kanpo geldituko dira nolanahi ere herriko beste hainbat talde edo elkarrekin antolatzen dituzten iharduerak.

Ezohiko kirol jarduetarako dirulaguntza, Udal kirol zerbitzuko 2023ko gastuen-aurrekontuetako 107004813410003 2023 (282) "Aloña-Mendi KE-ri diru-laguntza" partidatik ordainduko da.

4.4. Bulego eta administrazio gastutarako dirulaguntza

Aloña Mendi Kirol Elkartek bere eguneroko jardunean dituen bulego eta administrazio gastutarako 7.028,15 euroko dirulaguntza luzatuko dio urtero Oñatiko Udalak.

Bulego eta administrazio lanengatik dirulaguntza, Udal kirol zerbitzuko 2023ko gastuen-aurrekontuetako 107004813410003 2023 (282) "Aloña-Mendi KE-ri diru-laguntza" partidatik ordainduko da.

4.5. Eskalada ekintzetarako diru-laguntza

Ekarteko mendi saileko eskalada taldeari, urtean zehar burutuko duen ekintza programa gastutarako 2.200 € euroko diru-laguntza luzatuko dio, 2023an, Oñatiko Udalak. Sailak abian jarriko dituen ekintzak honakoak dira:

- Zubikoa kiroldegiko rokodromoa eta boulder gunearen mantenua 2.2000 €

Eskalada ekintzetarako dirulaguntza, Udal kirol zerbitzuko 2023ko gastuen-aurrekontuetako 107004813410003 2023 (282) "Aloña-Mendi KE-ri diru-laguntza" partidatik ordainduko da.

Ekarteko mendi saileko eskalada taldeko partaideek bestalde, rokodromoa eta boulderraren mantentze-lanez ez ezik honako beste ardurak eta konpromisoak hartu dituzte udalarekin baita ere:

- Oñatiko boulder kirol txapelketa antolatzea
- Eskalada kirol eskolari laguntza teknikoa ematea
- Araotzeko eskalada-bideen erregistroa eguneratua osatu eta krokisak egitea
- Araotz eskalada-guneen txukuntze lanak egin eta antolatu
- Segurtasun neurrien gaineko oinarritzko formakuntza saioak antolatzea
- Rokodromoa eta boulderreko presak eta eskalada bideen mantenua eta dinamizaioa.

- Oñatiko Eskola Kirola eta Hezkuntza Elkartearekin batera. Eskalada topaketa bat antolatzea Eskola Kirola programaren baitan.

4.6.Desplazamenduetarako dirulaguntza

Atletismo sailari, Arrasateko atletismo Udal instalazioetan egiten dituen entrenamendu saioen desplazamendu gastuetarako 1.1000 €-ko dirulaguntza luzatuko dio, 2023an, Oñatiko Udalak elkarteari.

Desplazamenduetarako dirulaguntza, Udal kirol zerbitzuko 2023ko gastuen-aurrekontuetako 107004813410003 2023 (282) "Aloña-Mendi KE-ri diru-laguntza" partidatik ordainduko da.

Elkartek bestalde, egindako bidaien/desplazamenduen detailea emango dio Udalari, honako datuak emanez: hilabeteko bidaia kopurua * ibilgailu bakoitzeko – bidai bakoitzean joandako pertsonen kopurua. Datu horiek, denboraldi amaieran eta urte amaieran helaraziko dizkio sailak Udalari.

4.7.Azterketa medikuak egiteko dirulaguntza

Kirol-praktika federatua da elkartearen praktika testuinguru nagusia, eta horretan lehiatzeko, kirolariak derrigorrezkoa dute azterketa medikua egitea, 14/1998 LEGEA, ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena, jasotzen denez. Horrela bada, kirolari federatuei azterketa medikuak egiteko 5.000 €-tako dirulaguntza emango dio Udalak elkarteari.

Azterketa medikuak egiteko dirulaguntza, Udal kirol zerbitzuko 2023ko gastuen-aurrekontuetako 107004813410003 2023 (282) "Aloña-Mendi KE-ri diru-laguntza" partidatik ordainduko da.

4.8.Triatloi sailari dirulaguntza

Elkarteko triatloi sailari 660 €-tako dirulaguntza emango Udalak sailaren gastu bereziei aurre egiteko.

Dirulaguntza Udal kirol zerbitzuko 2023ko gastuen-aurrekontuetako 107004813410003 2023 (282) "Aloña-Mendi KE-ri diru-laguntza" partidatik ordainduko da.

4.9.Zubikoa kiroldegia erabiltzeagatik dirulaguntza

Elkartek bere kirol jarduera egiteko kirol instalazioen beharra du, eta kirol programa eta ekintza asko Zubikoa Kiroldegian gauzatzen ditu elkartek. Horrela, Udalak erabilera horren gastuen aurreikuspena eginga du, eta urteko gastu aurrekontuetan jasotzen du diru-laguntzen IV. Kapituluari. Zubikoa Kiroldegia erabileraren gastuaren aurreikuspena 115494.23 €koa da. Gastua, 2023ko 107004813410001 2023 (281) "Aloña-Mendi Kea kiroldegia erabiltzeagatik dirulaguntza" partidari aurreikusita du Udalak. Dena den, eta esan bezala, gastu hori erabileraren aurreikuspenaren gastua da, eta elkartek ez du dirulaguntza hori jasotzen, baina bai Udal aurrekontuetan elkarteari egozten zaion laguntza da.

4.8. Dirulaguntzen ordainketa

4.1, 4.3, 4.4, 4.5, 4.6, 4.7, eta 4.8 puntuetako dirulaguntzak bi epetan ordainduko dira: urteko lehen lauhilabetean dirulaguntzaren %60a eta bigarrenean %40a. 4.9 kontzeptuan jasotzen den dirulaguntza ez du elkartek kobratzen.

4.10. Dirulaguntzen eguneratzea

Aurreko lerroetako dirulaguntzak, urtero, elkarteko kirol dinamikan aurreikusten diren aldaketen arabera, eta Udalaren egoera ekonomikoaren arabera eguneratuko dira.

5.-Udalaren jabetzako kirol azpiegiturak

5.1.- Aloña Mendi Kirol Elkartek erabili ahal izango du Udalaren jabetzako kirol azpiegiturak erabilerarako, beti ere herrian, bai kirol arloan eta bai bestelakoetan, dauden gainerako beharrianen kaltetan gabe.

Instalazio erreserbak eta erabilpena modu egokian gauzatu ahal izan dadin, Aloña Mendi Kirol Elkartek uztailak 10a baino lehen, beharren; erabiltzaileen, ordutegien eta egutegien egitasmoak luzatuko dizkie Udaleko kirol zerbitzuei –dagokion inprimikia bete behar dute eskatzaileek-, bi aldean artean plangintza egokia gauza dezaten. Lankidetzak hitzarmen honetako I. Eranskinean jasotzen dira Udalaren jabetzako kirol azpiegituren erreserba egiteko prozedurak eta horiek erabiltzeko araudiak eta irizpideak. Aloña Mendi Kirol Elkartek I. Eranskinean jasotzen diren erreserbak egiteko prozedurak eta instalazioak erabiltzeko irizpideak aintzat hartu eta horiek betetzeko konpromisoa hartzen du.

5.2.- Oñatiko Udalak bere kirol azpiegituratan aldaketarik edo berrikuntzarik egiteko aurrikuspenik balu, edota azpiegitura berriren bat sortzeko egitasmorik balu, horien guztien berri emango dio Aloña Mendi Kirol Elkarteari, kirolaren ikuspuntutik egitasmo horien inguruan duen iritzia Udalari luza diezaion.

5.3.- Udalak bere gain hartzen du Azkoagain Udal futbol zelaiaren erabileraren kudeaketa eta antolaketa, eta baita instalazioaren garbiketa lanak eta mantenu lanak ere.

5.4.- Udalak, Larrañako Institutuarekin lankidetzan, bere gain hartzen du San Lorentzo kirol-gunearen erabileraren kudeaketa eta antolaketa, eta baita instalazioaren garbiketa lanak eta mantenu lanak ere.

5.5.- Udalak, Zubikoa kiroldegiko medikuntza gela fisioterapia zerbitzua emateko baimena ematen dio elkarteari honako egunetan eta ordutegian: astearteetan, asteazkenetan eta ostegunetan 17:00etatik 19:30ak bitartean.

6.-Eskola Kirola

6.1.-Oñatiko Eskola Kirolaren antolaketa eta kudeaketa, horretarako propio dagoen egituraren bidez egiten da, Oñatiko ikastetxeekin batera. Beraz ez da hitzarmen honen helburua soilik aipatu egiturari dagozkion gaiak dostea.

Hala ere, alde bakoitzaren borondatearen erakusgarri, honakoa hitzartzen dute:

6.2.- Aloña Mendi Kirol Elkartek bere konpromisoa hartzen du Udalaren aurrean, Oñatiko Eskola Kirolaren antolaketaren egituraren parte hartzeko.

6.3.- Halaber, Oñatiko Udalak konpromisoa hartzen du Eskola Kirolaren antolaketaren egituraren Aloña Mendi Kirol Elkarteari partaidetza bultzatzeko.

6.4.- Oñatiko Udalak Eskola Kirola programa garatzeko beharrezkoak diren Udal kirol azpiegituren erreserbak egingo ditu.

6.5.- Gipuzkoa lurraldeko Eskola Kirola arloko berriazko araudia, eta eskola ikasleentzako kirol hastapeneko unitateen eta kirol teknifikazioko unitateak arautzen dituzten foru aginduak eta araudiak beteko ditu Aloña-Mendi KE-ak. Halaber, berriazko araudia eta delako foru aginduak elkarteak sail ezberdinek betetzen dituztela egiaztatuko du baita ere elkarteak (IV. Eranskinean jasotzen diren 5.1 Araudi orokorra eta 5.2. Araudi espezifikoaren ataletan jasotzen diren araudi eta foru aginduak).

7.-Aloña Mendi K. E.-aren betebeharrak Udalarekiko

Aloña Mendi Kirol Elkarteak, hitzarmen honetako gainerako puntuetan adierazi eta onartutako konpromisoen gain, honako konpromisoak hartzen ditu Oñatiko Udalarekiko:

7.1.- Aloña Mendi Kirol Elkarteak Oñatiko Udalaren Kirol Batzordean modu jarraian eta iraunkorrean parte hartuko du.

7.2.- Aloña Mendi Kirol Elkarteak, urtero txosten bat luzatuko dio Oñatiko Udalari urte horretan zehar Kirol Elkarteak burututako ekintzen, lortutako emaitzen eta elkartearen egoeraren berri ematen duena, eta hitzarmen honetan aipatzen den informazio eta datuak jasotzen dituen.

Aloña Mendi Kirol Elkarteak, aurreikusitako xedeak bete izana egiaztatu beharko du, ondorengo dokumentazioaren bidez:

a.- Abendua 1a baino lehen, dirulaguntzak ematerakoan jarritako baldintzak bete direla egiaztatzen duen Jarduera-txostena emango dio Udalari. Txostenak, elkartearen sailez-sail, gutxienezko datu eta honako informazio zehatza jasoko du:

- Katetoria bakoitzean kirol talde / kirolari kopuruen taula (sexuaren arabera banatua)
- Entrenatzaileak eta kirol formakuntza
- Gauzatutako jarduerak
- Lortutako emaitzak zehaztuz
- Hurrengo urteko "Ekintza eta txapelketa berezien" zerrenda
- Atletismo sailaren desplazamenduen datuak
- Eskalada Taldearen jardueraren memoria eta aurrekontua
- Aurrekontua: gastuak – sarrerak

Oharra: Sailez-sail aurrekontua ondoren zehazten den bezala aurkeztuko du Aloña Mendi Kirol Elkarteak: alde batetik, "Kirol Hastapen Unitate"-ei dagokionez, aurrebenjamin, benjamin eta alebin kategorietan, eta bestetik, "Kirol Federatua"-n aritutako kategorietako aurrekontua, hots; infantil, kadete, jubenil eta senior kategoriei dagokiena.

b.- Otsailak 15a baino lehen, diru-laguntza partida edo lerro ezberdinetan burututako jardueren kostea, edota izandako gastuak nahiz sarrerak egiaztatuko duen txosten ekonomikoa, honakoak jasoz:

- 1.- Gastuen eta inbertsioen zerrenda.
- 2.- Hori egiaztatzen duten faktura edo egiaztagiria eta ordainketa egin deneko agiria.
- 3.- Jarduerak finantzatzeko jasotako beste sarrera edo dirulaguntzen zerrenda, bakoitzaren zenbatekoa eta jatorria adieraziz.

4.- Beharra balitz, erabili gabeko soberakinik balego itzulketako ordainketa-gutuna eta horietatik jasotako interesena.

7.3.- Aloña Mendi Kirol Elkarteak urteroko bere diru kontuen ikuskaritza edo auditoria egitera behartua balego edo eta Udalak edo beste Administrazio batek hala eskatuko baliokete, elkarteak derrigorrez jarri beharko ditu ikuskariaren esku, Dirulaguntzen Lege Orokorren 14.1.f artikuluaaren arabera eska dakioken liburu, erregistro edo agiri guztiak.

Era berean, egiaztapen aktuzioak onartu beharko ditu Udalaren aldetik eta baita egiaztapen eta diru kontrolekoak ere ahalmena duten kontrol-organoren baten aldetik, eskatzen zaion beste argibide emanez.

7.4.- Aloña Mendi Kirol Elkarteak hitzarmena izenpetu aurretik, zerga eta Gizarte Segurantzako obligazioei dagokienez egunean dagoela egiaztatu behar du.

7.5. Aloña Mendi Kirol Elkarteak hitzarmena izenpetu aurretik, legeak agintzen dituen eta dagozkion erantzukizun zibileko aseguruaren polizak egiaztatuko ditu.

7.6.- Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Arautegiak dioena kontutan hartuta, 1994. urtean Udalarekin sinatutako *Euskaraz baietz!* Hitzarmenean Aloña Mendi K.E.ak hartutako hizkuntza konpromisoak kontutan hartuta, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko kirol eta mahaiaik kirol elkarteak diruz laguntzerakoan Udalek hizkuntza irizpideak kontutan hartzeko egindako proposamenarekin bat eginez, Aloña Mendi kirol elkarteak honako hizkuntza konpromisoak hartzen ditu bere gain hitzarmen honen baitan:

- Elkarteak herriko haur eta gazteekin antolatzen dituen jarduera guztietan euskara erabiliko da, ahoz nahiz idatziz.
- Elkarteak jendaurrean antolatzen dituen txapelketa, kirol ekitaldi, jaialdi eta antzekoetan euskararen erabilera ziurtatuko da.
- Bazkide eta kirolariei helarazten zaizkien gutun, barne zirkular eta antzekoetan euskara gutxienez erabiliko da.
- Euskararekin batera gaztelera ere erabiltzen den kasuetan euskararen erabilerari emango zaio lehentasuna.

7.7.- Kirol elkarteak deuseztatuko balitz, likidazioaren ondoriozko ondare garbia oso-osorik Oñatiko Udalari itzuliko zaio, haren eskumenen arabera garatu ditzan kirol helburuetan erabiltzeko.

7.8. Udalak hala eskatuko balio, elkarteak Udalak antolatuko dituen kirol egitasmo ezberdinetan parte hartuko du aktiboki, betiere egitasmo horiek bi entitateentzako onuragarriak eta aberasgarriak badira, eta egitasmo horien xedea kirol praktikaren sustapena bada eta praktika horren kalitate maila gehitzearen helburuarekin bat egiten badute. Hala nola: kirol monitoreen formakuntza planak, kirol gai ezberdinen gaineko hausnarketa prozesuak, kirol arloko plangintza, eta abar.

7.9. Kirol elkarteak haur, gazte eta nerabeekin kirol jarduera teknikoak, nahiz bestelako jarduera osagarriak egiten dituzten pertsonak (entrenatzaileak, zainatzaileak, fisioterapeutak, etabar.) Hautzaroa eta adolezientziaren babes sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legeko 8.artikuluaaren arabera, sexu delitugileen Erregistro Zentraleko agiri negatiboa izan behar dute. Agiria, jarduera hasi aurretik gehienez ere 3 hilabetetako aurretiaz emandakoak izan behar dira.

Informazio eta datu horiek guztiak Udal Kirol Zerbitzuak prestatuko dituen datu-orrietan aurkeztu beharko dira euskarri informatikoan, dagozkion epeetan.

8.- Udalaren eskumenak.

Udalari dagozkio honako eskumenak: hitzarmena interpretatzea, hura betetzean sor daitezkeen zalantza kasuetan erabakitzea, interes publikoak eskatuta aldatzea, bertan behera uzteko akordioa hartzea eta horren ondorioz zehaztea, lege (apirilaren 18ko, 781/1986 Erret Dekretu legegilearen 114. artikulua) ezarritako mugen baitan eta beti ere han jasotako baldintza eta ondorioei lotuta.

Horri buruz hartutako erabakiek administrazio bideari amaiera emango diote eta bat batean bihurtuko dira betearazle.

9.-Hitzarmenaren Jarraipenerako Batzordea

Hitzarmen honen helburuak modu egokian bete daitezzen, beraren jarraipena egiteko Batzordea eratzen da honako pertsona hauek osatzen dutena: Oñatiko alkateak edo honek ordezkaturako zinegotziren batek; Oñatiko Udaleko Kirol Batzordeko presidenteak edo honek ordezkaturako zinegotziren batek; Oñatiko Udaleko Kirol Teknikariak; Aloña Mendi Kirol Elkarteko presidenteak edo honek ordezkaturako norbaitek eta Udaleko Kirol Batzordean Aloña Mendi Kirol Elkartek duen ordezkariak.

Jarraipen Batzordeko bileretara, hitzarmena sinatzen duten alde bietako batek hala eskatuta, beste pertsonaren batzuk ere joan ahal izango dute, gai zerrendan dagoen gairen baten iritzi tekniko edo profesionala emateko.

Jarraipen batzordea urtean gutxienez behin bilduko da; hala nola, Udalaren aurrekontuen prestaketa prozesua irauten duen bitartean

Halaber, bi aldeetako batek Jarraipen Batzordearen bileraren bat eskatzen badu, bilera eskatu denetik hamabost egun baino lehen ospatuko da bilera hori.

10.-Hitzarmena desagitea

.- Aloña Mendi Kirol Elkartek jarritako baldintzak beteko ez balitu Udalak hitzarmena bertan behera utz lezake, Elkartek Udaletik jasotako dirulaguntza itzuli beharko lukeelarik.

Hitzarmenaren klausulak bana-banan irakurri ondoren, bi aldeek erabateko adostasuna adierazten dute eta agiri hau oso-osorik onartzen. Eta hala jasota gera dadin behar den lege ondorioetarako, hasieran adierazitakoa toki eta egunez sinatzen dute Hitzarmen hau, Oñatin 2023ko urtarrilaren 27an.

**Oñatiko Udalaren izenean:
Izaro Elorza Arregi**

**Aloña Mendi K.Earen izenean:
Anton Inza Biain**

I. ERANSKINA**ALOÑA-MENDI KEak UDAL KIROL INSTALAZIOAK ERRESERBATZEKO
ETA ERABILTZEKO BALDINTZAK JASOTZEN DUEN ARAUDIA****3.4 KIROL ELKARTEAK ETA BESTE TALDE BATZUK****1. Artikulua.-**

- a) Kirol elkarteek eta legez eraturako beste kirol talde batzuek udal instalazioak erabili ahal izango dituzte euren entrenamenduak, txapelketak eta erakustaldiak egiteko.
- b) Kirol elkartetzat hartua izateko, elkarteak inskribaturik egon beharko du Euskal Herriko Kirol Elkarte eta Federazioen Erroldan eta Udaleko Kirol batzordearen erregistroan.
- c) Kirol elkarteek eta gainerako kirol taldeek Kiroldegiko Zuzendaritzari eskatu beharko diote instalazioen lagapena partidu, entrenamendu, erakustaldi eta abarretarako, araudi honetako 5. atalburuan zehaztutakoaren arabera.
- d) Kirol entitateek Oñatiko Udaleko Kirol Zuzendaritzak egindako egutegiaren arabera erabili ahal izango dituzte instalazioak. Zubikoa kiroldegiko instalazioak banatzeko erabilitako irizpideen arabera ezarriko dira lehentasunak entrenamendu, partidu eta bestelakoen ordutegiak antolatzeke. Erreserbak egiteko irizpideetan kontuan hartuko da zenbatek erabiliko duten instalazioa, bai eta nolako ezaugarriak, interesak eta beharrak dituzten. Irizpide horiek Udaleko Kirol batzordeak ezarriko ditu, udalaren kirol politikaren gidalerroen arabera, eta berari dagokio baita ere erreserba eskaerak onartzea edo ez onartzea.
- e) Oñatiko Udaleko Kirol Zuzendaritzak edo Kirol batzordeak antolatu edo baimendutako ekintzen menpe geratuko da entrenamenduetarako erabilera ematea edo ez ematea; gorabehera horren ondorioz lehendik baimendutako entrenamenduen ordutegia bertan behera utzi edo aldatu behar denean, ezin izango da erreklamaziorik aurkeztu. Nolanahi ere, gutxienez 15 egun lehenago emango da horren berri.
- f) Kirolari federatuek jokaera ona izan beharko dute instalazioetan, eta langileei lana erraztuko diete. Nahitaezkoa da langileak errespetatzea eta langileek emandako aginduei kasu egitea. Errespeturik izan ez edo jokabide txarra edukiz gero, kirolaria, kirol elkarte edo taldea zigortu ahal izango dira.

04.-ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

1. artikulua.- Kirolariek, teknikariek eta herriko kirol elkarte eta taldeetako gainerako kideek eskubide hau izango dute:

a) Zubikoa Kiroldegiak eskaintzen dituen zerbitzu eta instalazio guztiak erabiltzeko eskubidea, beti ere instalazio bakoitzaren araudian eta arautegi honetan ezarritakoa betez eta instalazioko langileen esanei jarraituz. Erabilera horiek aurrez Oñatiko Udaleko Kirol Zuzendaritzak onartuak eta baimenduak izan behar dute.

2. Artikulua.- kirolariek, teknikariek eta herriko kirol elkarte eta taldeetako gainerako kideek betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Instalazioak araudi honetan xedatutakoaren arabera eta instalazioetako langileen esanei jarraituz erabiltzea.

b) Instalazioak eta bertako ekipamenduak behar bezala erabiltzea. Axolagabekeriak edo maltzurkeriak sortutako edozein kalte, ekintzaren arduradunaren kontura joango da. Lehiaketa ofiziala bada, dagokion Federazioari edo klubari emango zaio kalteen berri, eta etxeko talde kontratatzailea izango da aurkariek sortutako kalteen erantzule subsidiarioa.

c) Instalazioetako enplegatuei jardunean sortutako arazo, apurtze eta akatsen berri edo araudi honetan xedatutako ez betetzeen berri ematea.

d) Beste erabiltzaileen lehentasun-eskubidea errespetatzea, bereziki alde aurretik emandako ordutegiaren erreserban.

e) Instalazioetan behar bezala portatzea eta enplegatuei lana erraztea. Nahitaezkoa izango da enplegatuekin errespetuz jokatzeko eta haien esanei jaramon egitea.

f) Nortasun Agiriaren bidez identifikatzea, instalazioetara sartzeko hala eskatzen denean.

g) Debe katuta dago instalazio barruan erretzea eta jatea, horretarako adierazitako lekuetan izan ezik; debe katuta dago aldageletatik kanpo jantztea eta erantztea, baita sexu bateko pertsonak beste sexuarentzako bakarrik gordetako tokietara sartzeko. Debe katuta dago, halaber, instalazioetan kristalezko objektuak edo animaliak sartzeko, indarrean dagoen itsutxakurrei buruzko araudian ezarritakoaren ondorio denean izan ezik.

h) Instalazioen erabilpena kirol arropa jantzita egingo da beti.

i) "Kirol eskolak" edo "Kirol teknifikaziorako unitateak" antolatzen dituzten herriko kirol elkarteak eurak arduratuko dira izen-emateez. Horretarako Zubikoa Kiroldegiak laguntza eskaini ahal izango die, kiroldegiko lokal bat edo gune bat utzita izen-emateak egiteko. Baina Zubikoa kiroldegiko langileek ez dute inskripziorik egingo eta ez dute inolako erantzukizunik izango horretan.

j) Elkartee eta beste kirol entitate batzuek, baldin eta kirolerako materiala gordetzeko espaziorik bat erabiltzeko eskubidea badute, garbi eta txukun eduki beharko dute, eta

materiala giltzapean edukiko dute erabil behar ez dutenean. Jabearen betebeharra izango da espazio eta kirol material horiek behar bezala zaintzea eta txukun eta garbi edukitzea.

- k) Jarduera bukatutakoan, kirol elkarteak eta taldeak arduratuko dira erabilitako materiala behar bezala jaso eta gordetzeaz. Era berean, kirol elkarte eta taldeen ardura izango da jarduera bukatutakoan ikusleak kirol kantxan ez sartzea.
- l) Indarrean dagoen legeriak edo Araudi honetan xedatutakoak aitortzen duen bestelako edozein betebeharrak.

05.-ERRESERBA ARAUAK

Zubikoa kiroldegia erreserba egiteko, herriko kirol elkarteek eta taldeek artikulua hauetan zehaztutakoa jarraituko dute:

1. artikulua

- a) Zubikoa kiroldegiko instalazioak erabiltzeko erreserba-eskaera soilik kirol elkarte edo taldeetako teknikariek egin dezakete. Erreserba-eskaera onartzen ez bada, kirol elkarteek edo taldeek ezingo dute Kiroldegiko instalaziorik erabili.
- b) Oñatiko Udaleko Kirol Zuzendaritzari eta, hala egokituz gero, Kirol Batzordeari dagokio erreserba-eskaerak onartzea edo atzera botatzea.

2. artikulua

- a) Erreserba mota hauek bereizten ditugu:

a.1. Entrenamenduetarako erreserbak: hauek, izenak dioen moduan, kirol elkarteek eta taldeek ohiko kirol saioetarako egiten dituzten kirol instalazioen (nagusiki eta auxiliarrak) erreserbak dira.

a.1.1. Oñatiko Udaleko Kirol Zuzendaritzak kirol elkarte eta taldeekin batera "Entrenamenduetarako erreserben koadro orokorra" osatuko du. Bertan denboraldi osorako kirol elkarten asteroko erreserbak agertuko dira. Erreserba horiei "Entrenamenduetarako ohiko erreserbak" deritze eta irailaren 1etik ekainaren 15era bitarteko indarraldia dute (kirol denboraldia). Ekainaren 15etik aurrera automatikoki baliogabetuko dira instalazioen erreserba horiek.

a.1.2. Beren jarduera Zubikoa Kiroldegian egiten duten kirol elkarte eta taldeek, hala nola eskubaloia, saskibaloia areto futbola, gimnasia erritmikoa eskalada, esku pilota, tenisa, igeriketa, eta atletismoa, erreserba eskaera egin behar dute aurreko denboraldian kirol talde edo sail bakoitzari "Entrenamenduetarako erreserben koadro orokorrean" esleitutako asteroko orduen arabera.

a.1.3. Instalazio aldaketa edo eskaera berri bat egiteko, denboraldian zehar nahiz hortik kanpo, eskaera-orria bete behar da. Adibidez: entrenamenduak egiteko, Gabonetan, denboraldiz kanpoko opor garaian edo jai egunetan eta abar.

a.1.4. "Instalazioen ohiko erreserba" egiteko, kirol elkarte edo sail bakoitzak denboraldirako duen jarduera-aurreikuspena hartuko da erreferentzia gisa. Erreserba hori uztailaren 1etik 10era bitartean egin behar da.

a.1.5. Oñatiko Kirol Zuzendaritzak eta instalazioak erabiltzeko erreserba egin duten kirol elkarte eta taldeek (aurreko denboraldian nahiz datorren denboraldirako izan) bilera

egingo dute Zubikoa kiroldegian, uztailearen 16an, 18:00etan (egun hori jai eguna izango balitz, hurrengo egun baliodunean egingo litzateke bilera ordu berean). Bilera horretan amaitutako denboraldiaren balorazioa egingo da eta hurrengo denboraldiko erreserbak koordinatuko dira.

a.2. Partidu ofizialetarako erreserbak:

a.2.1. Partidu ofizialetarako Zubikoa Kiroldegiko erreserbak "Partiduetarako erreserben koadroan" jasoko dira. Kirol elkarteek eta taldeek erreserben koadro orokorrerako eskaera behin egingo dute, federazioek modalitate eta kirol kategoria ezberdinetako lehiaketetarako zozketa egingakoan, eta, astero, asteburuari dagokion erreserben koadrorako.

a.3. Beste erreserba batzuk:

a.3.1. Aloña-Mendi KE-k eta beste kirol entitate batzuek kirol ekitaldiren bat edo kirolaz aparteko ekitaldiren bat antolatzeke, antolatu nahi den jardueraren arabera, honela egin behar dute erreserba:

a.3.1.1. Formatu txikiko eta ikuslerik gabeko kirol jarduerak edo ekitaldiak: ohiko eskaera bete beharko da, 32-a artikuluan zehaztutako moduan.

a.3.1.2. Formatu handiko eta ikusleak dituzten jarduera edo ekitaldiak: ohiko eskaera bete beharko da, 32-b artikuluan zehaztutako moduan.

3. artikulua

Erreserbak egitea:

a) Zubikoa Kiroldegiko instalazioen ohiko erreserbak -entrenamenduetarako nahiz partiduetarako- bi modutara egin daitezke: korreo elektronikoz, eskaera-orria behar bezala bete eta harrera.zubikoa@onati.eus helbidera bidalita, edo eskaera-orria Kiroldegiko harreraren beteta.

b) Instalazioen aparteko erreserbak -baita apartekoa izan gabe ere, instalazioa ikusleentzat ireki behar bada- Udaletxeko erregistroan egin behar dira, horretarako dagoen inprimakia bete eta erregistratu behar da.

6.- INSTALAZIOETAN SARTZEKO ETA ERABILTZEKO ARAU OROKORRAK

1. artikulua

a) Instalazioa araututako helburu batekin erabiltzen dutenean, Kirol entitateetako kirolariek ez dute banakako abonurik behar. Hala ere, instalazioa erreserbatzeko betebeharra izango dute.

b) Instalazioetako bazkide diren kirolarien edo Aloña-Mendi kirol Elkarteko bazkide izanik Zubikoa kiroldegiko instalazioen erreserba eta erabilera Oñatiko Udaleko Kirol Zuzendaritzak onartutako partidu eta entrenamenduetako egutegi/ordutegira mugatuko da, eta ezingo da erreserba luzatu egutegi/ordutegi horretatik kanpo.

2. artikulua

b) Zerbitzu eta instalazioen erabilera onartutako baldintza eta egutegi/ordutegietara mugatuko da. Aurrez onartu ez bada, ezingo da zerbitzuen eta instalazioen beste mota bateko erabilerarik egin. Elkarreetako eta bestelako taldeetako erabiltzaileak, oro har, jarduera hasi baino 30 minutu lehenago sartu ahal izango dira instalaziora, eta beste 30 minutu izango dituzte jarduera bukatu ondoren instalazioa uzteko.

c) Kirol elkarteek eta taldeek gauzak gordetzeko Kiroldegian dauden biltegiak erabili ahal izango dituzte.

d) Kirol elkarte eta taldeetako kideek egiten duten instalazioen eta zerbitzuen erabilera kirol taldeko arduradunak gainbegiratuko du beti, kirolariak instalazioan sartzen direnetik irteten diren arte. Bera izango da kirol elkarte edo taldearen arduradun, eta taldekideen jokaeraren erantzule.

e) Aldagelen eta takilen erabilera kirol jarduerari lotuta egongo da. Jarduera bukatutakoan, takilak libre utzi beharko dira ondorengoek erabiltzeko.

08.-OHIKO KIROL IKUSKIZUNAK

8.1.-ESKAERA. BAIMENA**1. artikulua**

"ERRESERBEN ARAUAK" araudiko 5 ataldean adierazten den moduan, kirol elkarte edo taldea Zubikoa Kiroldegiko arduradunarekin elkartuko da eta txapelketako egutegia jakinaraziko dio.

Talde eta ikastetxe guztien egutegiak jasotakoan, instalazioen eta ordutegien banaketa egingo da. Proposatutako jarduera guztiei leku egiten saiatuko dira.

8.2.-ANTOLAKETA**2. artikulua**

Jarduera baimendutakoan, elkarteak, taldeak edo ikastetxeak arduradun bat izendatuko du, eta bera izango da taldearen arduraduna instalazioan sartzen direnetik kanpora irteten diren arte, "ERABILTZAILEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK" izeneko araudiko 4 atalean jasotakoaren arabera.

Pertsona hau etxeko nahiz kanpoko taldearen jarrera eta jokaeraren erantzule izango da.

Ohiz kanpoko gorabeheraren bat gertatuz gero, momentu horretan kiroldegiko arduradun lanetan ari denari jakinaraziko zaio.

8.3.-SARRERA. BALDINTZA EKONOMIKOAK**3. artikulua**

Jarduera edo partidua antolatu duen elkarteak sarrera kobratzeko eskubidea izango du. Zubikoa Kiroldegiko Zuzendaritzari jakinarazi ondoren, Udaleko Kirol batzordeari eskatu ahal izango dio antolatu nahi duen ekitaldian edo partiduan sarrera kobratuko dutela. Batzordearena da sarrera kobratzeko eskubidea eman ala ez eman erabaki eta ordainketaren baldintzak ezartzeko eskumena, elkartearekin edo eskaera egin duen taldearekin negoziatu ondoren.

Horrelakoetan leihatila non jarriko den eta sarreraren salmentez nor arduratuko den zehaztu beharko da.

09.-APARTEKO KIROL IKUSKIZUNAK EDO BESTELAKOAK.

9.1.ESKAERA. BAIMENA**1. artikulua**

Ohiko ez diren kirol jarduerak edo kultur, jolas eta jai ekitaldiak antolatzeke, instalazioen alokairua honela egingo da:

1. -Udalari idatzizko eskaera egingo zaio, instalazioa eta eguna libre ote dagoen jakiteko. Eskaeran, enpresa eskatzailearen edo eskaera egin duen pertsona fisikoaren edo Elkartearen datuak zehaztuko dira (izena, helbidea, IFK, ordezkari legala, telefonoa...). Nahitaezkoa izango da ekitaldiaren helburua adieraztea, eta musika jaialdi bat baldin bada abeslaria edo talde nagusia zein den zehaztuko da.

2.-Gobernu Batzarraren erabakia ahalik eta eperik laburrenean jakinaraziko zaio eskatzaileari.

3.- Ekitaldiaren antolatzaileak ekitaldiaren Autobabeserako Plana egin eta aurkeztu beharko dio Oñatiko Udaleko Kirol Zuzendaritzari. Ekitaldiaren plana bat etorri beharko da Zubikoa Kiroldegiko Autobabeserako Planarekin. Oñatiko udaleko Kirol Zuzendaritzak, hala badagokio, onartuko du Autobabeserako Plana. (Autobabeserako legea / jokoak eta ikuskizunak) Autobabeserako Plana gehienez ere ekitaldia egin baino hamar egun lehenago entregatuko zaio Oñatiko Udaleko Kirol Zuzendaritzari.

9.2.ANTOLAKETA**2.- artikulua**

Jarduera baimendutakoan, klubak edo elkarteak arduradun bat izendatuko du, eta berau izango da taldea instalazioan sartzen denetik kanpora irteten den arte arduraduna.

Pertsona hau etxeko nahiz kanpoko taldearen jarrera eta jokaeraren erantzule izango da.

Ohiz kanpoko gorabeheraren bat gertatuz gero, momentu horretan kiroldegiko arduradun lanetan ari denari jakinaraziko zaio.

9.3.SARRERA. BALDINTZA EKONOMIKOAK**3. artikulua**

Ekitaldiaren planteamenduaren arabera erabakiko da lagapena eta gainerako zerbitzu osagarriak doan izango diren ala ez. Udal Kirol Batzordeari dagokio antolatutako ekitaldiaren gaineko baldintza ekonomikoak baloratzeta eta erabakiak hartzea.

11.-ERANTZUKIZUNAK

11.1.-ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA**4. artikulua**

Oñatiko Udalak erantzukizun zibileko aseguru-poliza dauka Zubikoa Kiroldegiko instalazioen kontserbazio edo erabilpen txarra dela eta gerta litezkeen istripuei aurre egiteko.

Aseguru honek ez ditu bere gain hartzen erabiltzaileen erabilera txarren ondorioz sortutako kalteak.

5. artikulua

a.- Herriko kirol elkarte edo taldeek antolatutako jarduerak edo kirol zerbitzuek erantzukizun zibileko aseguru kontratatu behar dute nahitaez, jardueran zehar erabiltzaileei, parte-hartzaileei edo beste edonori eragin lekiokkeen kalteari aurre egiteko. Polizaren gutxieneko arauzko estaldura jardueraren eta instalazioaren ezaugarrien arabera zehaztuko da [Kirolaren Euskal legea]. Kontratua gehienez ere ekitaldia edo jarduera egin baino hamar egun lehenago entregatuko zaio Oñatiko Udaleko Kirol Zuzendaritzari.

b.- Txapelketa edo ikuskizuna burutzen den bitartean ikusleek egindako egintzen erantzukizuna entitate antolatzailearena izango da.

AZKOAGAIN UDAL FUTBOL-ZELAIA ERRESERBATZEKO ETA ERABILTZEKO ARAUAK

- 1. Artikulua:** kirol instalazioa erreserbatu eta erabiltzeko irizpideak eta arauak **"AZKOAGAIN UDAL FUTBOL-ZELAIAREN ERABILERAREN ORDENANTZA-ARAUTZAILEA"** ordenantzan jaso eta onartu ditu Udalak, eta horiek dira instalazioaren kudeaketa, erreserba eta erabilera arautuko dituzten oinarriak.
- 2. Artikulua:** Udal kirol batzordeari dagokio aipaturiko Udal ordenantzak jasotzen ez dituen balizko egoera berezien gaineko erabakiak hartzea.
- 3. Artikulua:** Aloña-Mendi KEko futbol sailak, ordezkari bat izendatuko du Udalarekin mintzaide izateko. Horren bitartez, garbiketa eta mantenu beharrak, erabileraren eskaerak eta horien jarraipena eta kirol instalazioaren erabilerak suertatuko dituen edozein egoeren berri emango dio Udal Kirol Zerbitzuaren zuzendaritzari, nahiz Udal batzordeari, dagokionean.
- 4. Artikulua:** Aloña-Mendi KEko futbol sailak, futbol-zelaia ureztatzeaz arduratuko den pertsona bat, edo pertsona talde bat izendatuko du, eta pertsona horrek izango du futbol-zelaia ureztatze arduraren. Saileko beste inork ez du ureztatze kontrol sistema manipulatu. Udalak, pertsona edo pertsona-talde horri erakutsiko dio ureztatze prozedura eta kontrola nola egin behar duen. Erabilera okerra egiteagatik sistema matxuratuko bada, elkarteko sailak hartuko ditu bere gain matxuraren konpontze gastuak.

SAN-LORENTZO KIROL-GUNEA ERRESERBATZEKO ETA ERABILTZEKO ARAUAK

- 1. Artikulua:** kirol instalazioa erreserbatu eta erabiltzeko irizpideak eta arauak **"SAN LORENTZO UDAL FUTBOLZELAIAREN ERABILERAREN ORDENANTZA-ARAUTZAILEA "**, eta **"SAN LORENTZO PILOTALEKUAREN ERABILERAREN ORDENANTZA-ARAUTZAILEA "** ordenantzetan jaso eta onartu ditu Udalak, eta horiek dira instalazioaren kudeaketa, erreserba eta erabilera arautuko dituzten oinarriak.
- 2. Artikulua:** Udal kirol batzordeari dagokio aipaturiko Udal ordenantzak jasotzen ez dituen balizko egoera berezien gaineko erabakiak hartzea.
- 3. Artikulua:** Aloña-Mendi KEko futbol sailari dagokio instalazioan kirol ekintzak amaitu ondoren, argiak itzali, tresna elektriko guztiak deskonektatu eta ate guztiak ixtea: aldagelak, biltegiak, komunak, eta sarrerako atea.
- 4. Artikulua:** Aloña-Mendi KEko futbol sailak, ordezkari bat izendatuko du Udalarekin mintzaide izateko. Horren bitartez, garbiketa eta mantenu beharrak, erabileraren eskaerak eta horien jarraipena eta kirol instalazioaren erabilerak suertatuko dituen edozein egoeren berri emango dio Udal Kirol Zerbitzuaren zuzendaritzari, nahiz Udal batzordeari, dagokionean.
- 5. Artikulua:** Aloña-Mendi KEri dagokio pilotalekuko aldagelen garbiketa egitea elkarteko sail ezberdinek erabiliko balituzte.

II. ERANSKINA

Udal kirol instalazioen erabilera orekatua ahalbidetzeko eta kirol hastapenerako programen antolaketa egokia bermatzeko, kirol elkarteak "Kirol Eskolen¹" eta oro har kirol hastapenerako zerbitzuen gaineko informazioa ahalik eta zehatzen jaso eta Zubikoa Kiroldegian emango dute ondoren zehazten diren baldintza eta epeetan. Datuak, dagozkien txantiloietan jasoko dira ondoren zehazten diren jarraibideen arabera:

1. Xedea:

Araudi eta jarraibide hauen xedea da Kirol Eskolen edo Kirol Hastapenerako Zerbitzuen programak eta dinamikak antolatzea, koordinatzea eta formalizatzea Oñatiko udalerrian.

2. Txantiloiak eta epeak:

<i>Eranskina</i>	<i>Gaia</i>	<i>Epea</i>
Eranskina I	Instalazio eskaera	uztailak 10
Eranskina II	Programa eta antolakuntza	azaroak 1
Eranskina III	Kirolariak – Kirol taldeak - Hezitzaileak	azaroak 1
Eranskina IV	Aurrekontua	azaroak 1
Eranskina V	Memoria	Abenduak 1

OHARRAK:

- II Eranskinen "Programa" atala, "Kirol Eskola" abian jartzen den lehen urtean aurkeztu behar da. Hala ere, Udalak, programa edo horri dagokion edozein xehetasun eskatu ahal izango dio elkarteari denboraldiko edozein uneetan beharrezkoa baderitzo.

Aipaturiko eranskinak eta dokumentazioa zehaztutako epeetan aurkeztu behar dituzte "Kirol Eskolek". Dokumentazioa eta eranskinak ez aurkeztea honako ondorioak izango ditu:

- "Kirol Eskolei" ez zaie emango Udal kirol instalazioak erabiltzeko baimena, eta ondorioz ezingo dituzte Udal azpiegiturak erabili.
- Ez dute Udal diru-laguntzarik jasoko.

¹ "Kirol Eskolak", edota "Kirol hastapen unitateak", kirol modalitate jakin baten hastapena helburu duen kirol zerbitzua dela ulertzen dugu. Zerbitzu horiek batipat, kirol elkarteek eskaintzen dituzte aurrenbenjamin, benjamin eta alebin kategorietan (zenbait kasuetan infantil kategorian baita ere).

Dokumentazioa jaso eta epeetan bidaltzea dakarren koordinazio lana elkartearen ardura izango da.

3. Dokumentazioa:

Dokumentazioa eranskin-dokumentuetan jaso behar da, bakoitza dagokion dokumentuan. Jasotako informazioa eta dagozkion gehigarriak, formatu informatikoan bidali behar dira helbide honetara: rlasagabaster@onati.eus aipaturiko data baino lehen.

4. Ebazpenak

Eskaerak eta dokumentazio osagarriak aztertu ondoren, Udaleko Kirol Batzorde informatiboak ebazpen-proposamena egingo du eta Tokiko Gobernu Batzarrari bidaliko dio, Gobernu Batzarrak ebazpena onartu eta bideratu dezan.

Udal kirol instalazioen erabilera, beraz, ebazpen horietan jasotako baldintzen arabera izango da. Instalazioetan beste erabilera osagarriren bat egin nahi denean, Udaleko Kirol Batzordeari egingo zaio eskaera. Batzordearen onespenez gabe, Kirol Eskolek eta hastapen zerbitzuek ezingo dute bestelako erabilerarik antolatu eta egin.

5. Legedi marko orokorra

“Kirol Eskolek” eta kirol hastapen unitateak indarrean dagoen toki legedia eta kirol legedia bete behar dute uneoro, honakoak alegia:

* Euskal Autonomia Erkidegoan, eskola adineko haurren kirol praktikak ondoren zerrendatzen den legedi marko hau bete behar du ezinbestean. Legediz 6 eta 16 urteko tartea hartzen du Eskola adineko kirolak.

* Talde kiroleko-Klubek, aukera dute KIROLO ESKOLAK sortzeko Otsailaren 25ko 69/2008 Foru Agindua jarraituta. Adina: 8 urtetik aurrera. Beraz, adin honetatik (8urte) beherako eskaintzak legedi markotik kanpo daude. Baimen hau eta urteroko luzapena (nahiko balute), Foru aldundiak kudeatzen du.

* Bakarkako kiroleko-Klubek ere aukera dute Kirol Eskola sortzeko; horretarako (69/2008) bertako baldintzak baimentzen eta aplikatzen zaizkie. Beraz, aukera dute 8 urtetik aurrera Kirol-Eskolak sortzeko (salbuespenak ezik). Baimen hau eta urteroko luzapena (nahiko balute), Udalak kudeatzen du.

5.1.- Araudi orokorrak

1.1.1.- Euskadiko Kirolaren 1998ko ekainaren 11ko 14/1998 LEGEA (“Eskola kirolaren oinarriak, printzipioak eta araubidea”).

1.1.2.- Kirolaren Euskal Plana (Eusko Jaurlaritzak 2003ko uztailaren 22an) eta Kirolaren Euskal Kontseiluak (2003ko ekainaren 2an onartutakoak) Euskal Autonomi Erkidegoaren esparruan eskola kirola antolatzeko eta homogeneizatzeko plana.

1.1.3.- Eskola Kirolaren 125/2008ko DEKRETUA

- Eusko Jaurlaritzak: eskola kirolaren arloko araubidea.

- Foru Aldundiek:
 - Arau horiek garatu eta betearaziko dituzte, azken kasu honetan udal administrazioarekin elkarlanean.
 - Lurralde historiko bakoitzeko eskola kiroleko ikasturteko programa egingo dute.
- Udalek: Eusko jaurlaritza eta Foru aldundiaren araubideari jarraiki, herriko eskola kiroleko egiturak sortu, bultzatu eta ikuskatuko ditu.

1.1.4.- IKASTURTEko argitaratzen den FORU AGINDUA; Eskola Kiroleko jardueren programa onartzen duena.

- Foru Aldundiek: Urteroko programa gauzatzen dute Kirol Federazioekin bat eginez.
- Kirol federazioak: Eskola Kiroleko ikasturteko programaren alderdi teknikoez arduratzen dira; alde batetik, adin talde edo kategori bakoitzean zein jarduera mota egin, eta bestetik, txapelketak zein irizpideren arabera antolatu eta joko arauak eta partaideen adinetako ezaugarri eta interesak nola egokituz.
- Udalak: ikasturteko Eskola Kiroleko programa jarraitu eta betearaziko dute udalerriko Eskola Kiroleko egituraren bidez.
- Ikastetxeak: Jardueren heziketa, administrazioa eta antolamendu alderdiak beteko dituen zerbitzu iraunkorrak ikastetxeetan egituratuko da.
- Kirol elkarteak: eskola kirolaren garapenean esku hartzen dute, beharrezkoa den aldiro asistentzia teknikoa emanez.

5.2.- Araudi espezifikoak

5.2.1.- Urriaren 19ko 63/2007 FORU AGINDUA, eskola ikasleentzako kirol teknifikazioko unitateei baimena ematea arautzen duena.

5.2.2.- Otsailaren 25ko 69/2008 Foru Agindua, Saskibaloia, Eskubaloia, Futbola, Areto futbola, Errugbia eta arrauneko hastapen unitateak baimentzen dituenak”.

5.2.3.- 2009ko 145/2009 Foru Agindua, Eskola Kiroleko programaren barruko baimenak arautzen dituenak.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	Aloña-Mendi KErekin lankidetza hitzarmena 2023
CSV/EKS:	SINA520c81e0-7eb5-487c-ae7f-5513300b1257